



2020 ARTILE BILKETA PRENTSA OHARRA

Aurten Gipuzkoan, uztailaren 2.hamabostaldian egingo da bilketa! Interesdunentzat telefono zenbakia: 696 433 602

Artilea dela eta, buru belarri lanean dihardugu, etorkizunean artilea baliozko den baserriko produktua izan dadin. Proiektu ezberdinetan hainbat enpresa eta eragile artilea balorizatzeko irtenbideak aztertzen gabiltza lanean.

Proiektu hauek gauzatzen diren bitartean, Gipuzkoan artile bilketa modu antolatu egiteko hainbat eragile aritu gara: Gipuzkoako Foru Aldundia, ardi sektoreko elkarteak, gestio etxeak, nekazaritzako sindikatuak eta Landa Garapeneko elkarteak. Bilketa zerbitzua ahalik eta modu sinple eta merkeenean egiteko prozedura landu eta adostu dugu.

Aurtengo antolakuntzaren ezaugarria, sektorearen inplikazio zuzena izan da: Lurgintza eta Abelur Gipuzkoako Landa Garapen Elkarten Federazioarekin batera (Landaola).

Interesa duten artzainek 696433602 telefonora deitu behar dute. Bertan azalduko zaizkie entregatzeko eguna, ordua eta tokia.

Gipuzkoan artilea biltzeko 5 puntu ezarri dira:

| EGUNAK | LEKUAK | HELBIDEA |
|--------------------|-----------|---------------------------------------|
| UZTAILAK 20 | IDIAZABAL | ABELTZAINEN ELKARTEAN (Gorrotxategi) |
| | ASTEASU | AGROALDEAN, ZONA INDUSTRIAL Pol., 188 |
| UZTAILAK 22 | AZPEITIA | Urola erdiko LAPATX ZABORTEGIA S.A. |
| | BERGARA | EPELE ZABORTEGIA, ELORREGI AUZOA ZG |
| UZTAILAK 27 | ASTEASU | AGROALDEAN, ZONA INDUSTRIAL Pol., 188 |
| UZTAILAK 29 | BERASTEGI | ARTALEKUN, AITZERGA AUZOA |

Finantzaketaren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduko du eta bestea artzainek ordainduko dute. Egindako proposamenak sektorearen inplikazio zuzenagoa dakar eta iaz bezala "konpost"-a egitera bidaliko da Nafarroara, ekonomia zirkularra sustatuz.